

# CONJUROS NO SIEMPRE ORTODOXOS (III)<sup>1</sup>

Juan Garmendia Larrañaga

*Téntere nublo, tente tú.  
Los ángeles van con tú  
Si eres agua, ven aquí  
Si eres piedra, vete allí ....*

(José María Iribarren: *Estampas tudelanas*)

## EMAKUME BATEN KONJURUA

### EL CONJURO DE UNA MUJER

Zaldibiako Bitori Etxe baserriko emakume batek, Loma izenez ezagutzen zenak, konjuratzeko ohitura zuen. Honetarako, esku batean kandela piztuarekin eta bestean ur bedeinkatua eta erramu adartxo bat zituen ontzi batekin, Aralar mendietara begira jarriz, ur bedeinkatua bedeinkapen moduan botatzen zuen, honako hau esanez: "Ekaitza Aralarren bota eta behekoa salbatu (beheko aldean daude baserriak eta herria)."

(Una mujer del caserío *Bitori Etxe* de Zaldibia, conocida por el nombre de Loma, acostumbraba a conjurar. Para ello cogía una vela encendida y un recipiente pequeño con agua bendita y una ramita de laurel. Miraba en dirección a los montes de Aralar y echando agua bendita a guisa de bendición, decía: *descarga en Aralar y salva la zona baja* (Parte baja, donde se encuentran los caseríos y el centro de la Villa)<sup>2</sup>

## ELOSUN EZAGUTU DEN KONJURUA

### EL CONJURO CONOCIDO EN ELOSUA

Exortismo hau behar bezala kokatzeko, Korta baserria Azkoitiko lurretan dela adieraziko dut. Bazterriñuak izenez

<sup>1</sup> Este trabajo intitulado *Conjuros no siempre ortodoxos (III)* es una continuación de los publicados con igual título en *Oarso* 97 y *Oarso* 98 y, como indicaba en el número anterior, creo que no hace al caso ser reiterativo en lo fundamental con las introducciones que llevan los mismos. Pero no pasaré por alto sin dejar constancia de que a la Junta Rectora de la revista debo las artísticas ilustraciones que enriquecen los artículos aludidos.

<sup>2</sup> En Abaltzisketa : Juan Garmendia Garmendia -61 años-, caserío *Etxe Zar*. Lorenzo Otamendi Garmendia - 68 años- Caserío *Pilin Haundi*, el 28 de junio de 1.997.

ezagutzen diren hiru baserriak Antzuolan eta Lutxurdio-koak izenez ezagunak direnak Elosukoak, Bergarakoak alegia. Denak ikus litezke Elosuko bailara honetatik. Eta hemendik, apaizetxe ataritik honako konjuria esaten zen:

*Hortik, hortik,  
Kortako soroetatik  
Hiru Bazterriñuak  
Eta bi Lutxurdioak apurtuz  
Eta nere ortuko txermenak gordez*

(Para centrar debidamente el exorcismo siguiente señalaré que el caserío *Korta* se encuentra en tierras de Azkoitia, los tres caseríos llamados *Bazterriñuak* en Antzuola y los dos *Lutxurdioak* -en Elosua- pertenecen a Bergara. Todos a la vista del corazón de este barrio de Elosua. Y desde aquí, desde la puerta de la casa rectoral se conjuraba diciendo:

*De ahí, de ahí,  
Desde los sembradíos de Korta  
Arrasar los tres Bazterriñuak  
Y los dos Lutxurdioak,  
Conservando los perales de mi huerto)<sup>3</sup>*

## KONJURUA ETA BENENOA

### CONJURO Y VENENO

Oñatiko baserri bateko arta-ganbaran *saguekin ezin buruturik zebiltzan, eta hau honela ikusirik, etxeoandreak senarrari esan zion zerbait egin beharrean aurkitzen zirela saguak izkutarazteko. Orduan, konjuria egiteko, apaiz bati esatea pentsatu zuten. Apaiza akolitoarekin baserrira joan zen eta bere eginbeharra bete zuen, exortismoa egin*

<sup>3</sup> En Zarautz: Juan José Aizpurua Esnal. El 14 de julio de 1.996. En Azkoitia (barrio de los Mártires): Manuel Arrizabalaga Zubizarreta -72 años-. Caserío *Mártires*. El 21 de diciembre de 1.996. En Elosua: Mateo Gabilondo Alberdi - 70 años-. Caserío *Agerre* ( pertenece a Bergara). El 13 de junio de 1.997.

zuen. Elizara itzuli zirenean, akolitoak sagu batzuk ikusi zituen sakristian, batera eta bestera mugitzen, eta apaizari honela esan zion: *Jauna, hemen ere zerbait-konjurua-egin beharko dugu ba!* eta hau entzutean, apaizak erantzun: *Saguentzat onena benenoa duk.*

(En un caserío de Oñati se encontraban molestos y preocupados por la presencia de ratones en el lugar reservado al almacenamiento del cereal de maíz).

Esto así, la mujer le dijo al marido que tendrían que pensar en algo para que desapareciesen los roedores. Decidieron, entonces, llamar a un sacerdote para que conjurase como era costumbre en estos y parecidos casos.

El cura, acompañado de un monaguillo se dirigió al caserío y llevó a cabo el exorcismo consiguiente. De vuelta a la iglesia, el monaguillo observó cómo varios ratoncitos se movían en la sacristía y se dirigió al sacerdote diciéndole: *Señor, aquí también tendremos que hacer algo (conjurar).* A lo cual el cura le respondió: *Contra los ratones lo mejor es el veneno*<sup>4</sup>

### KATUAK ETA KONJURUA LOS GATOS Y EL CONJURO

*Arantzazun exortzismoaren eraginaz apaizak agertzen zuen mesfidantzaren antzekoa zuen konjurugilearena, gogoan gordetzen du Zegamako herriak, Txomin Landa herriko elizako sakristauak esan zidanaren arabera.*

*Soroan zomorroek kalte egiten zutela eta, baserri batetik apaizari konjurua egiteko dei egin zioten.*

*Apaizak bete zuen bere eginbeharra eta galdetu ziotenean zomorroak akabatu ote ziren edo ez, konjurugileak honela erantzun zion: Nire hanka azpian harrapatu ditudanak, haiiek behinik behin bai, eta apaizak honela esanez amaitu zuen: Zomorroentzat, soroa garbitzeko, onena duzu bi katar (katu arrak) ekartzea.*

(Similar a la duda del sacerdote acerca de la efectividad del exorcismo que hemos visto en Arantzazu, es la del conjurador cuya memoria conserva el pueblo de Zegama, según pude escuchar al sacristán del templo parroquial, Txomin Landa.

Por los daños que ocasionaban diferentes bichos en las tierras de sembradío, de un caserío pidieron a un cura que llevase a cabo el conjuro que procede en estas ocasiones.

El sacerdote hizo el exorcismo, y al ser preguntado acerca del resultado de su intervención dijo que estaba seguro de que murieron todos los bichos que cogió debajo de los pies, y agregó seguidamente: *Para este menester lo mejor es valerse de dos gatas - katarak-, no gatas.* )<sup>5</sup>

<sup>4</sup> En Oñati (barrio de Arantzazu): Miguel Maiztegui Arregui - 61 años- Casa *Goiko Benta*. El 9 de marzo de 1.997.

<sup>5</sup> En Zegama: Domingo Landa Etxeberria - 71 años- El 5 de julio de 1.997.

### BARRIKA BATEK HARRIJASA JASOTZEN DU UNA BARRICA RECOGE EL PEDRISCO

Nire berriemaileak bere zaharrei entzuna die, Leitzako apaiz batek konjurua egin zuela esanez, plazaren erdian barrika bat ahoz gora jartzeko. Ondoren, harrijasa dena barrika honetan sartu omen zen, herrian kalterik egin gabe.

(Mi informante sabe de sus mayores cómo un sacerdote conjuró en Leitzza diciendo que en el centro de la plaza colocasen una barrica boca arriba. Siguieron la indicación del exorcista y todo el pedrisco entró en la barrica. De esta forma la Villa navarra se vio libre de los daños de la tormenta.)<sup>6</sup>

### KONJURUGILEA ETSIAIAZ GOGORATZEN DA EL EXORCISTA RECUERDA AL DEMONIO

Jarraian azalduko dugun konjuruan exortzistak, infernuko etsaia uxatzeko, zapata botako dio. Horrela, exortzismoaren eragin ona eragotzi zezakeen oztopoa gaudituko du. Badira bizpahiru konjuru honen antzekoak, baina honakok, aurrekoekin bat badator ere, aipatzea merezi duten xehetasun aberasgarri batzuk eskainiko dizkigu.



Nafarroako Araitz bailarako Gaintza herrian eguraldiak ekaitz itxura hartu zuen. Jendea ikaratu egin zen eta Azkarateko apaizari dei egin zioten konjurua egin zezan. Honek lan hauetarako egokia zen liburua hartu eta exortzismoa egiteari ekin zion, inguruko Mailoak izeneko mendiak harrijasak zurituta zeudenean.

Apaiza konjurua egiten ari zela, ikaragarritzko haizea sortu zen eta hau ikusitakoan, bere zapata eskuan hartu eta bota egin zuen, inguru haietatik infernuko etsaia uxatu asmoz, honela esanez: *To eta eraman ezak!* Oinetakoa Intzako mailoan azaldu zen, Aginaga iturri ondoan, eta Gaintzako herriskak ekaitzaren kalterik ez zuen ezagutu.

(En el conjuro que describiremos a continuación nos encontramos con que el exorcista arroja un zapato al demonio para ahuyentarlo. De esta manera evita el obstáculo que impedía el efecto positivo del exorcismo. He narrado un par de conjuros parecidos a éste, pero el que facilito ahora, aun coincidiendo en lo fundamental con los

<sup>6</sup> En Areso: Miguel Barandain Labayen -80 años- Caserío *Olatxeta*. El 25 de octubre de 1.997.

aludidos, ofrece algunos detalles enriquecedores que merece la pena tenerlos en cuenta.

En el valle navarro de Araitz, el pueblo de Gaintza se veía amenazado por la tormenta. Los vecinos se asustaron y recurrieron al cura de Azkarate, localidad del mismo valle, para que llevase a efecto el exorcismo recomendado para estos casos. Los montes que cobijan a Gaintza se hallaban blanqueados por el pedrisco y un ventarrón azotaba mientras el cura realizaba el exorcismo. En vista de esto, el conjurador cogió uno de sus zapatos y lo arrojó violentamente hacia donde creía se encontraba el demonio, al tiempo que exclamaba: *¡ Toma y llévate! To eta eraman ezak!* De esta manera el exorcista evitaba el poder del diablo que se oponía a la influencia del rito, y Gaintza se vio libre del pedrisco. Añadiré que el zapato del exorcista apareció en la mailoa que corresponde a Intza, lo encontraron cerca de la fuente de Aginaga.<sup>7</sup>

### **SAN MIGEL AINGERUA ETA KONJURUA**

#### **EL ÁNGEL SAN MIGUEL Y EL CONJURO**

Uharte Arakileko alkateak basozainari esan zion San Migelera igotzeko eta bertako apaizari esateko, Aingeruarekin mesedez jaitsi zedila Uhartera, basasaguak akabatzeko konjurua egin zezan.

Hau entzunik, apaizak honela adierazi zion basozainari: *Aingeruak basasaguak akabatu nahi baditu, inora joan gabe hemen bertan badauzka nahikoak.*

Allin entzun dudan honen berdina Oderitzen gertatua, herri honetan esan zidatenez.

(El alcalde de Uharte Arakil ordenó al guarda forestal que subiese a la basílica de San Miguel para decir al capellán que visitara con el Angel el pueblo, para conjurar contra los ratones de campo.

Al escuchar al guarda, el sacerdote le respondió: *Si el Angel quiere matar a los ratones de campo no tiene por qué ir hasta Uharte Arakil, puesto que aquí nos sobran, los tenemos en demasía.*

Versión idéntica a ésta que recogí en Alli me facilitaron en Oderitz, en el mismo Valle de Larraun, siendo protagonistas los de este pueblo).<sup>8</sup>

<sup>7</sup> En Gaintza (Valle de Araitz): Ramón Ascaray Arsuaga - 58 años-. Caserío *Matxindo*. El 21 de febrero de 1.988.

<sup>8</sup> En Alli (Valle de Larraun): Ignacio Zabaleta Recalde - 65 años-. Caserío *Arretxea*. El 23 de febrero de 1.998. En Oderitz: Anastasio Viana Oderitz. El 23 de febrero de 1.998.



### **SAN MIGEL, SAGU SANTUA**

#### **SAN MIGUEL, SANTO RATONERO**

Nafarroako Erriberan basasaguen izurria zegoen, eta hau konpontzeko Aralarko Aingeruarekin konjurua egin zuten. Ekintza hau dela eta, Aingeru konjurugileak Sagu Santuaren izena hartu zuen.

Hemen adieraziko dut errogatibaren egiten diren konjuruen artean aurkitzen dela Saguen Konjurua izenekoa.

(Al hilo de la narración anterior señalaré que a San Miguel le llaman en la Ribera de Navarra Santo ratonero, y esto es debido a que por el exorcismo realizado con el Angel de Aralar desapareció en esa zona la plaga de ratones de campo. Aquí dejaré constancia que entre los Conjuros en rogativa figura el denominado de los ratones)<sup>9</sup>

<sup>9</sup> En Ekai-Arakil: Angel Ongai Azpiroz -59 años- Casa *Martxorena*. El 23 de febrero de 1.998.